

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa bati, zein Mendoza menpeko toki erakundeko 18.ean dagoen lursail baten –59-2-271– katastro-erreferentzia duena– zati bati kalifikazio xehatua bide-saretik egoitzetara aldatzeko baita

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2017ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa, zein Mendoza menpeko toki erakundeko 18.ean dagoen lursail baten 59-2-271 katastro-erreferentzia duena– zati bati kalifikazio xehatua bide-saretik egoitzetara aldatzeko baita.

Erabaki-proposamena

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak Gasteizko HAPO aldatzeko idatzitako proiektua ikusi da, zeina Mendoza menpeko toki erakundeko 18an dagoen lursail baten — 59-2-271 katastro erreferentzia duena — zati bati kalifikazio xehatua aldatzeko baita, bide sare (CO-U) izatetik egoitzetakora (RE-OR10.1) aldatzeko baita, J. I. R. de S. L. jaunak hala eskatuta.

Aldakuntza honen xedea da 59-2-271 katastro-erreferentzia duen lursailaren zati bati, 43,78 metro koadrokoa, kalifikazio xehatua aldatzea, hau da, “Komunikabide eta garraiorako bide sarea” (CO-U) izatetik “famiabakarreko egoitza -menpeko toki-erakundea”– 1. gradua, RE-OR-10.1– izatera pasatzeko, eta hartara bertan urbanizatuta dagoen bidearen lerrokadurara egokitu.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharraren justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta aldatua, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

2017ko uztailaren 3an Plan orokorraren aldaketa honen aldeko txostena egin zuen Gasteizko Udala Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuak; bertan adierazten denez, bide-sareak badu nahikoa zabalera eta alde batean lorategi eremu batekin urbanizatuta dago, eta bide-sareak zabalera handiagoa beharko balu hortik zabal liteke kaleko plataforma. Txostenak orobat dio mantendu egin behar dela nekazaritza gunetako urbanizazioen ohiko izaera. Esaterako, kasu honetan, harlanezko hormekin egindako lursail-itxiturak mantendu.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko uztailaren 28an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa horri, zein Gasteizko Mendoza menpeko toki erakundeko 18.ean dagoen lursailaren zati bati (katastro-erreferentzia: 59-2-271) kalifikazio xehatua aldatzeko baita, hain zuzen ere bide-saretik (CO-U) egoitzetarako kalifikazioa (RE-OR10.1) izatera pasatzeko; guztia dosierrean jaso den proiektuarekin bat.

Udalbatzaren erabaki hori 2017ko abuztuaren 21eko ALHAOn (95. zk) eta 2017ko abuztuaren 24ko Diario de Noticias de Alava egunkarian argitaratu zen, eta aldakuntzari buruzko dokumentazioa hogeiguneguz jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Mendozako Administrazio Batzarrari 2017ko abuztuaren 7an eman zitzaion erabakiaren berri, hoguei eguneko epean txostena eman zezan; Epe hori igaro delarik ez da ebazpen edo erantzunik jaso eta, horrenbestez, izapidearekin aurrera jarrai daiteke.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak 2.01.06 artikuluan xedatzen duenez, eremuen mugei dagozkien garapen tresnetan egokitzapenak egin ahalko dira, honako alderdiei dagozkienetan: lerrokadurak edo indarrean dauden eraikuntzetarako lerroak, edo hiri edo landa jabetzen mugak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak—Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierren parte diren hirigintza-agerietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduen 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Batzordeak Udalbatzari,

Erabakia

1. Behin betiko onespina ematea Vitoria-Gasteiz udalerriko HAPOaren xedapen aldaketari, Mendoza menpeko toki-erakundeko 18.ean dagoen 59-2-271 katastro-erreferentziako lursailaren zati baten kalifikazio xehatua bide-saretik (CO-U) egoitzetara (RE-OR10.1) aldatzeko, Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzi eta dosierrera bildu den proiektuarekin bat.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.


3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 30ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

Aldatutako arauak

- Comunicaciones y transporte. Red viaria / Garraiobideak. Bidesarea
- RE-OR10_1 Residencial. Ordenanza 10 Grado 1 / Etxebizitzetarakoa. 10. ordenantza 1. maila



MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA
 CAMBIO DE CALIFICACIÓN PORMENORIZADA DE PARTE DE LA PARCELA SITA EN MENDOZA 18
 HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKUNTZA-XEHEA
 MENDOZAKO 18. ZENBAKIAN DAGOEN LURSAILAREN ZATI BATI KALIFIKAZIO XEHEA ALDATZeko

Hirri Antolamenduko VITORIA GAS EIZ Hirri Nagusia Hirri General de Ordenación Urbana	Plano/Planoa	3- CALIFICACIÓN PORMENORIZADA. PROPUESTA KALIFIKAZIO XEHEA. PROPOSAMENA	
	Fecha/Data	Escala/Eskala	Arquitecto/Arkitektoa
	JULIO 2017 UZTAILA	1:1.000	ZIORTZA GRISALEÑA URRUELA